

# DROGAREN ERRONKA: URTE BETETIK HONAKO ESPERIENTZIA

ASKE 17

## HASIERAKO KEZKAK ETA SAIOAK

Duela urte bete hasi zen gure herrian azaleratzen populazioaren gehiengo batek zuen kezka eta ondoeza heroina-trafikoaren aurrean eta honek gure gazte eta gaztetxoengan ukan ditzakeen ondorio eta eraginaren aurrean. Egiatzko eta gauza nabaritzat ematen zen oraingo kontsumo eskasa, gero hurbil batetan, garrantzisko maila batetara igoko zenaren arriskua.

Hasiera hasieratik burutu ziren zenbait ekintza prebentibo eta droga zabaltzen zihoala salatu zen inongo zigorrik gabe eta konplizitate eta baimen guztiaz egun argitan kale, estai eta zeinahi lekutan.

"Zaldiaren", hots, heroinaren eta honen trafikoaren aurka lehen pintaketak azalduz batera, ikastetxe publikoek aurrea hartu eta gai honetaz arduraturik zebilen jende multzo bat bilduazi zuten, drogomendetasunaz eta honen zergatiaz mintzatzeko. Hasiera beretik gogoan hartzen ahalegindu zen, ez zirela aski izango aldian aldiko ekintzak trafikoaren eta trafikarien aurka, nahiz eta gogor agertu horietan. Baizik eta beharrezkoa zela orduan, eta orain ere bai, eta lehen bait lehen egitekoa, guztiok egunero drogatzen gaituzten edonolako loeragileen eskabideak (diskriminazio gabe gehitzen doana) bideratzen duten kausak ezabatzea. Eta edonolako drogaz dihardugu eta ez, noski, gazteek kontsumi ditzaketen legez kanpoko drogez soilik.

## HEROINA

## TRAFIKANTERIK

**EZ!**

## KONTSUMO ERAGILEAK. SALAKETA

Kontsumo zabal horren eragileetako bat bezala ikusten zen komunikabideek egunero ematen duten informazio gabezia, nahasmendua eta aldreskeria. Era berean, ezinbestekotzat ikusten zen epe erdi eta luzera fruituak lortzeko, hauek lortuko badira, ahalegin bat egin beharra; jakina, alde bat utzi gabe, aldioro eta gure esku dauden medio guztiekin, erakundeen eragipenik eta eginkortasunik eza salatzea, udal erakundetik hasi eta Estatukoetaraino iritsiz. Halaber salatu beharra ikusten zen Euskal Herrian ezarrita dauden polizi indarrek duten zerikusia eta ustelkeria arazo honetan.

Aipamen labur honetan azpimarratu behar den beste puntu bat zera da: hasieratik kontu haundia hartu izan da bestetan eman diren akatsetan ez erortzeko. Heroiaren eta beste loeragileen aurka eta hauen trafikoa-aren aurka zihoan mugimendua ez zedila bilaka gehienbatez gazteak diren kontsumitzaileen kontra, eta azken batean gazteriaren kontra, zuzendutako polizi errepresioa gehitzeko arrazoibide, alegia. Eta eragotzi ere nahi zen gure ekinaldiak ez zitezen erabiliak izan, hainbestetan goraipatu, bere onetik atera eta hedatu den zorioneko "hiritar segurtasuneza"-ren izenean.

## **PUNDU EZTABAIDAGARRIAK: HIRITAR SEGURTASUNEZA? ARRAZAKERIA?**

Iazko Maiatzean egindako lehen manifestaldi jendetsuari beste bi jarraitu zitzaizkion Urrian eta Abenduan. Azken hau heroina-trafikoa-aren aurka eskualdeko mobilizapen baitan egin zen.


Prentsak tratamendu desberdina eman izan die mobilizapen hauei. Urriakoaren ondoren, Lezo ijito zenbaiten aurka zuzenduriko ekintzak zirela eta, "arrazakeriaz" jokatu omen zelakoaren kanpaina bat biztu nahi izan zen. Ildo honetatik leku eman zioten Gipuzkoako Ijitoen Elkarteko lehendakari-ordeari irrati kateetan ez-ezik prentsa idatzian eskuarki ere (Madrileko egunkari independente omen eta aipagaitza dena barne). Baina hemen aldean zereginik ez zutela ikusirik, jarreraz eta informazio-eraz aldatu beharrean gertatu dira azken abenduaz gero, jakineko gertaera batzu isilean utziz. Honela ezkutatu nahi izan dute herri-haserrearen adierazpen eta azalpen nabarmena (Arragoako txabolen erreketak, Eskeleto deritzanaren mitrailaketa, eskualdeko heroina-trafikari ezaguna omen den baten bi autoen erreketak...). Urriako saio ondoren **zeinetan** ezagutzen ziren trafikari gehienak, guztiak ez baziren ere, ijito arrazakoak zirelakoaz baliatu ziren, hiru manifestaldietan egin ziren pintaketetan ez ziren ijito arrazako trafikariak eta hauen helbideak soilik seinalatzen. Baina muzin egin diote errealitate honi eta isilarazi egin dute.

## UDALAREN JARRERA

Eta zer esan, hontaraz gero, gobernatzen gaituen Udal Gorporazioaz? Azaroan, eta nahi zezana joan ahal zedin, goiko elizan ospatutako Udalbatza ezohizkoa lortu bazen ere, beste behin nabarmendu zen herri ofizialaren eta errealairen arteko zatiketa: herri-batzarreak prestaturiko mozioari udal "gehiengoak" ustegabeen beste mozio "alternatibo" bat kontrajarri zion eta baietsi. Delako mozio hau gexala zen eta murriztua. Hala eta guztiz ere, gaur egun oraindik (urte erdi iragana da), ez dute beraiek - PNVk, PSOEek eta EEK - proposatu eta baietsitako puntu bat bete (betetzeko errazena, bestalde): mozioa bera plazaratzea, alegia. Honekin zalantza guztiak - oraindik baldin bazeuden - argiturik gelditzen dira erakundeen eta hauetan boterea dutenen borondateari dagokionez.

## ASKAGINTZA. HONEN SORRERA ETA ZEREGINAK

Hurrengo aurrerapausu bezala, ordurarteko abiadurari zegokiona bestalde, urte betetik honuntza biltzen ginen multzo hartako zenbaitetik Lezoko Askagintza osatzea erabaki genuen. Talde honek arazo honetaz arduraturik dabilen edonori irekia egon nahi du. Droga arazoak berekin dakarren drogomendetasunaren fenomenoak korapilotsua da eta egun eta hemengo gizarte-ereduaren moldakuntzan ditu bere sustraiak. Beraz, gure ingurumariko errealtatea aztertzen lehiatu behar dugu, ondoren prebentzio eraginkor bat eraman ahal izateko maila guztietan.



Gaur egun, ordezkoko muestra baten arabera, 14-25 urte bitarteko gazteei banatu zaizkien inkestak bildu zai gaude. Emaitzak sailkatu eta ikertu ondoren, Lezon gerora eraman daitezkeen proiektoei buruz gazteek zernola pentsatzen duten eta zer nahi duten jakin nahi dugu, gure kabuz sasi gazteluak airean eraiki orde.


Bukatzeko, ez dugu ahazturik uzten drogomendetasunaren beste eragilea: eskaintza (trafikoa eta trafikariak). Hori dela eta, prebentzio-rako lantaldeaz gain - ikastetxeekin hertsiki loturik lan egin behar duena -, beste lantalde bat ere ari da salatzeari eta berriemateari emana.

Pundu honi dagokionez, eta oraingoz salmenten kopurua jaitsi dela eta mugitzen hasi ginenean bezain trafiko lotsagabea ez dela dirudien arren, ez da oraindik desagertu; zuhurkiago ari dira baizik. Eta, dauzkagun berriek diotenez, egun bereziki Pysbe eta Altamira aldean daude kokatuak.

Hemendixe dei bat luzatzen diogu honetaz interesatua dagoen nor-nahiri gurekin lan egitera hurbil dadin.

LEZOKO ASKAGINTZA

# HEROINA TRAFIKANTERIK EZ!



MANIFESTACION

Abenduak 20 Diciembre

Arratsaldeko 7½ de la tarde

Herriko Plazan ORERETA